



Federación Guipuzcoana de Balonmano
Gipuzkoako Eskubaloien Federazioa
Paseo Ansoa 5. of. 31
20014 Donostia-San Sebastián
Tfn. 943 462634
Fax. 943 473191

KLUBAK ETA EPAILEEN BATZORDEA JAKINAREN GAINEAN EGON DAITEZEN

Gaia: PARTIDAKO AZKEN MINUTUAN BI MINUTURAKO KANPORATZEA

Kanporatzeari buruzko Joko Arauak aldatu direnez (2010eko uztailaren 1a), nola interpretatu dugun eta Diziplina Batzordean zer tratamendu emango zaion JAKINARAZTEN dizuegu:

a) Aurreko denboraldien aldean, Joko Arauetan ez da aurreikusten emaitza estuaren aldagaia, soilik ekintza azken minutuan gertatzea aurreikusten da.

b) Joko Arauen argitalpen ofizialean (1. argitalpena, 2010eko uztailaren 1a, Espainiako Eskubaloi Federazioa) akats bat dago 51. orrian, lehenengo lerroan (**8:6;**) agertzen den puntu eta komaren lekuan koma soilik (**8:6,)** jarri behar da.

Laburbilduta, hauek dira orain jasotzen diren ekintzak:

1) **8:5 Araua urratu delako bi minuturako kanporatuz gero**, ez da TXOSTEN IDATZIRIK egingo, betiere partidako azken minutuan gertatzen ez bada.

8:10:d Arauarekin lotura: Azken minutuan izaten bada, non gainera galarazi egiten zaion talde aurkariari atera jaurtitzea edo gol aukera argi bat sortzea: **TXOSTEN IDATZIA** egingo litzateke, eta ondorioz automatikoki diziplina zigorra ekarriko luke, **PARTIDA OFIZIAL BATEKO ZIGORRA**, hain zuzen ere.

2.) **8:6 Araua urratu delako bi minuturako kanporatuz gero**, TXOSTEN IDATZIA egingo beti, eta gainera, kanporatzeko unean, epaileek taldearen arduraduna jakinaren gainean jarriko dute TXOSTENA egingo dela.

8:10:d Arauarekin lotura: Azken minutuan izaten bada, non gainera galarazi egiten zaion talde aurkariari atera jaurtitzea edo gol aukera argi bat sortzea, bi diziplina zigor mota egon daitezke: alde batetik, kanporatzea eragin duen ekintza zigortuko da (**8:6 araua**), eta bestetik, automatikoki ezarriko da **PARTIDA OFIZIAL BATEKO ZIGORRA (8:10:d Araua)**.

3.) **8:9 Araua urratu delako bi minuturako kanporatuz gero**, ez da inoiz TXOSTEN IDATZIRIK egingo, partidako azken minutuan izanda ere.

4.) **8:10:c Araua urratu delako bi minuturako kanporatuz gero**, AZKEN MINUTUKO kasutzat hartuko dira honakoak: jokalariek oztopatzea baloia lehenbailehen jokoan jartzea, gol aukera argi bat ekidite aldera (erdiko edo alboko sarea, jaurtiketa librea), hau da, 8:7c) arauan jasotako ekintzak. Beraz, epaileek TXOSTEN IDATZIA egingo dute, eta automatikoki ezarriko da **PARTIDA OFIZIAL BATEKO ZIGORRA**.

Arau orokor moduan, TXOSTEN IDATZIA egiten den guztietan, ekintza gertatu bezalaxe jasoko da, urratutako araua aipatuko da, eta **azken minutuan izan bada berariaz adieraziko da**.